



BARREN

TOKIKOM



Partekatzearen onurak



ZERBITZU BERRIA!

LAGUNAK
colchoneria textil hogar

Udarako arropa konpontzea behar duzu?
Ekarri eta zure neurrira utziko dizugu.
Edozein ehun konpondu ahal izateko makinak ditugu.
Barrenak hartu, arropak estutu edo zabaldu,
kremailerak konpondu edo jarri...
Mota guztietako arropetan egiten dugu lan, alkandorak,
galtzak, soinekoak, jakak, mailotak...

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com

EXPRESS ESKAINTZAK!

L7FEE842S
AEG
ARROPA
GARBIGAILUA

599 €



- ProSteam: lurrun-programak.
- ProSense Motor inveter teknologia.
- Hasiera geroratua. • 8 kg-ko karga
- 1.400 b/min • Hatz marken kontrako herdoilgaitza.

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Gendako prezioak. Produktuak agortu arte



Elgoibar BHI
www.elgoibarbhi.eus

Elgoibar-Arreiture BHI
DBH
eta
BATXILERGOA

Giza eta gizarte zientziak

Zientziak

Artes

- Gizarte zientziak
- Humanitateak

- Osasun Zientziak
- Zientziak eta teknika

- Artistiko musikala

2021-2022 IKASTURTEA
DBHko eta BATXILERGOKo
matrikulazio epea:
ekainaren 21etik
uztailaren 6ra
Bulegoko ordutegia:
09:00etatik 14:00etara

943 899 316
013431@hezuntza.net
www.elgoibarbhi.eus





ASIER GUIASOLA IÑIGUEZ **Portu, ubide eta bideetako ingeniaria**

Nolako balioak, halako hiriak

eta komunitatea ez da oso erresilientea izan azken COVID urte honetan. Nabarmen aldatu dira hainbat ohitura gure egunerokotasunean. Tamalez, pertsona eta komunitate ahulenak eta zaurgarrienak izan dira oraingo txanpa ordaindu dutenak. Erresilientzia gutxikoenak.

Olatua berriro datorrenerako, agian hartu duzu flotagailu bakanen bat edo beste. Baina kolektiboki asko dago ikasteke eta ikasteko, egiteke eta egiteko.

Hirigintzan adibidez, gakoa (eta dirudienez orain konturatu gara) hiriak epe luzean non egon nahi duen ulertzean

“Hiriek, funtzio sozial eta ekonomikoaz gain, pertsonen osasunean eragina dute. Horregatik ezin ditugu edonola eraiki”

dago. Ez bakarrik eraldaketa fisikorako, baita aurrerabide sozialerako ere. Duela 10.000 urteko arrazoi beragatik bizi gara hirietan, baina konektatzen gaituzten sareak izan arren, aurrez aurre ikus-teko eta egoteko lekuak behar ditugu. Eta kalitatezkoak, erosoak, berdeak eta jasangarriak badira, are hobeto.

Etxezuloan sartuta egon zinenean igarriko zenuen, ezta?

Hiriek, funtzio sozial eta ekonomikoaz gain, pertsonen osasunean eragina dute. Horregatik ezin ditugu edonola eraiki, ezta nolana ere. Epe luzean funtzionatzen duten mekanismoak eta diseinuak sortu behar dira. Eta horretarako, nolako hiri, kale eta plazetan bizi nahi dugun adierazi eta aldarrikatu behar dugu, argi eta ozen.

Historiak erakutsi izan baitigu balioak aldatu egiten direla nola bizi nahi dugun pentsatzeari ekiten diogunean.

Zientzietakoa izan naiz ni ikasketetan, letrak alde batera laga nituen gaztetan. Karrerako lehen urtean, *Ciencia de materiales* ikasgai, lehengo aldiz entzun nuen *resiliencia* hitza. Hurrengo urtean berriro, *Ekologia* ikasgai. Ekosistemak eta bizidunen populazioek eta komunitateek perturbazioak eta aldaketak jasateko duten ahalmena, euren egitura nabarmen aldatu gabe. Hori da erresilientzia.

Entzun berri dut Nazio Batuek, ingurumenaren egunean, Gasteizko Eratzun Berdea ekosistema berreskuratzeko mundu mailako 50 eredu onenen artean izendatu dutela.

Izendapenak izendapen, populazioa



BARREN

ARGITARATZAILEA:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► CROWDFUNDING

SARE Herritarra elkarteak Lander Garrak zuzendutako *Tipula sehaska kanta* film-dokumentala ekoiztu du, espetxea eta eritasunaren gordina nola bizitzen den azaldu asmoz. Iraila-azaroa bitartean estreinatu nahi den film-dokumental honek argia ikus dezan Crowdfundig kanpaina jarri da martxan (<https://vkm.is/tipularensehaska>). Miguel Hernandez idazle eta poetak bere semeari eskainitako poema batek eman dio izena dokumentalari. 1936. urtean preso hartua, 1942. urtean espetxean hil zen tuberkulosiak jota.

Egun, oraindik, larriki gaixo dauden 18 euskal preso daude Frantziako, Espainiako eta Euskal Herriko espetxeetan, eta 36 dira bizia gaitzak jota galdu dutenak. Ahaztu gabe, espetxetik heriotza ate joka dutela eta gaitzak atzera-buertarik ez duenean kaleratu dituzten horiek guztiak.

Animatu nahi dugu giza eskubideen aldeko oro kanpaina honetan parte hartzera. Bide batez, gaur, hilak 25, ostirala, iluntzeko 20:00etan Kalegoen plazan egingo den elkarretaratzean parte hartzeko deia ere zabaldu nahi dugu.

Sare Elgoibar

► UDALARI

Herrian pasiaran ibili zalea den elgoibartar bat naiz. Uste dut zorionekoak gara herrian ibilaldi ederrak egiteko aukera daukagulako. Sallobenteko, Mintxetako edota Arriaga auzorako ibilbideak eskura dauzkagu, eta horiei BM inguruko ere gehitu diezaiekegu (horietan guztietan, modu batean edo bestean, komunak daude), baina, udan, beroak estu hartzen gaituenean, gustatzen zait Maltzagara arteko bidea egitea ere, ibai ertzeko bidea delako eta freskoagoa ere bai. Baina izan uda edo ez, eragozpen bat badu, bereziki emakumeontzat. Ez dago komunik, eta horregatik, elgoibartar askok uko egiten diote ibilbide horri. Behin baino

gehiagotan, bai ni neu eta baita beste zenbait lagun ere, Udal korporazioko ki-deekin jarri gara harremanetan, izan oraingo korporaziokoak edo lehenagokoak (duela sei bat urte), Maltzagarako bidegorrian komuna jartzea eskatzeko, baina erantzun bera jaso dugu beti: "Foru Aldundiaren eskumeneko gaia da hori".

Mutrikuko bidegorria duela bi urte baino gutxiago eraiki zuten eta dagoneko badauzka argiak eta komuna (gutxi gorabehera, erdibidean). Zer arazo daukagu elgoibartarrok? Zer gara, bigarren mailakoak?

Udal gobernuko jaun-andreak, eta berdin oposizioan zaudetenok ere. Honako galdera hau egiten diot neure buruari: udal ordezkari bakar batek (izan gaur egungoa zein lehenagokoa) ez al du sekula gure bidegorrian pasiararik egin? Orain, itxura denez, jartzekoa dute asfaltitiek eskatzen ari garen komuna, ibilbide hasieran. Askorekin hitz egin dut gai honi buruz eta suminduta daude denak. Asko kostatuko al litzaieke udal ordezkariari gai honi buruz herritarrei galdetzea? Aipatu dudana bezala, bai niri eta baita nirekin hitz egin duten guztiei ere, akats handia iruditzen zaigu komun horiek ibilbide hasieran jartzea. Udalak darabilen argudioa da ur hornidurak izango lukeen gastua. Udal arduradunok, ez baldin baduzue ezer jartzen, jakina, kostua txikiagoa izango da. Bukatzeko, udal agintariari proposatu nahiko nieke Maalan gosari eder bat egin ostean, abiatzeko Maltzagara oinez, eta joan-etorri hori osatutakoan eman diezagutela iritzia. Beharbada go-goeta egingo dute. Zuen erantzunaren zain gelditzen naiz.

G.B.

► ANAIA

Bizitza honetan beti izan zaitut ondoan. Une gozoetan eta une txarretan, barre egiteko orduan eta baita negar momentuetan, Realaren garaipenetan eta baitan porrotetan.

Momentu onak hobeak eta txarrak arinagoak ziren zure konpainian. Beti hor izan zara lagun eta anaia gisa. Lagun aparta eta anaia eredugarria. Hiztegietan bi hitz hauen esanahietan zure izen-abizenak agertu beharko liriateke. Zorinekoa ni, horren lekuko izan naizelako!

Gaixotasun madarikatu horrekin ere harrিতuta utzi dituzu sendagile, erizain eta erizain laguntzaile guztiak. Denek txalotu eta mirestu dute zure jarrera. Nik banekien horrela izango zela. Betiko legez, zure jarrera ezin hobea izan da, paregabea, baita momenturik txarrenetan ere. Azken egunean etorri zen sendagilea ere txundituta utzi zenuen izan zenuen adorea.

Amarekin gertatzen zaidan moduan, zutaz gogoratzen naizen bakoitzean gauza onak besterik ez zaizkit etortzen burura, zugandik ez baitut besterik jaso.

Mila esker, Jon, izan zarena izan zarelako eta eman didazun guztiagatik.

God save ~~the queen~~ my brother.

Beti zutaz harro egongo den zure anaia.

A.G.A.

► ESKERRIK ASKO, JON

Borrokaren bidean izan zara gidaria, udaren etorrerarekin batera hasi duzu hegaldia, zeruko atea dituzu irekiak izarren artean bidal diezaguzu argi eta energia, garaipenaren grinarekin jarraituko dugu zure omenean.

H.C.A.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Jendeak ez ditu Mintxetako aparkalekuak errespetatzen:

"Mintxetako aparkalekuak marra txuriz margotuta daude, baina jendeak ez ditu marra horiek errespetatzen, eta auto askok bi aparkaleku hartzen dituzte. Eguraldi ona egiten duenean jende asko igotzen da Mintxetara, eta denok daukagu aparkatzeko eskubidea. Aparkalekuak gaitzen dira gaizki aparkatutako autoen ondorioz. Eta non daude udaltzainak? Tarteka igotzen dira, aparkalekuan buelta bat ematen dute, baina ez dute isunik jartzen. Iruditzen zaigu egoera horretan isunak jarri beharko lituzketela".

Basarte auzoa zikinkeriaz beteta egoten da:

"Vending makina jarri dutenetik, egunero zikinkeriaz beteta lagatzen dute gure kalea. Basarteko 1. eta 2. portalaurreak beti egoten dira hondakinez beteta. Makinatik gertu badaude zabor edukiontzia, eta zakarrontziak ere badaude han inguruan. Hainbeste kostatzen al da zakarrak zakarrontzira botatzea? Eskertuko genuke gure kalea errespetatzea".

Ezinduentzako sarbidea oztopatuta egoten da Santa Ana kalean:

"Santa Ana kaleko saltoki batek erakusleihu moduan erabiltzen du espaloia, eta gurpildun aukiarekin ezin gara pasatu. Behin baino gehiagotan hitz egin dugu saltokiko jabearekin. Aurrekoan, aukiarekin fruta kaxa bat bota genuen lurrera nahi gabe. Giza Eskubideen Parketik udaletxe azpiko tuneletik buelta eman behar izaten dugu, baina han umeak ibiltzen dira jolasean, eta baloiarekin jo zuten gure ama. Iruditzen zaigu ezin dela minusbaliatuentzako pasabidea oztopatu, eta espaloia libre utzi behar dela. Dagozkionari eskatu nahi nioke esku har dezala kontu honetan. Eskerrik asko".



Txalo bat Sallobenterako bide bazterrak horren txukun garbitzeagatik.

"Ederki kendu dituzte sastraka guztiak. Pasiaran ibiltzen garenok igarri dugu aldea. Zati batzuetan errepidetik irteteko aukera dago orain, auto bat edo azkenaldian sarritan pasatzen diren kamioiren bat datorrenean. Ia urte osoan horrela mantentzerik dagoen".

Memoria partekatuaz egindako ibilbideari buruzko mahai-inguru batean parte hartu du Ane Beitia Elgoibarko alkateak Donostian

Gipuzkoako sei herritako alkatek, tartean Ane Beitia Elgoibarkoak, *Memoria eta egia ezagutzeko mekanismoak: esperientzia lokalak eta globalak* izenburuko jardunaldietan parte hartu zuten zapatuan Donostian. Argituz elkarteak antolatu zituen jardunaldiak eta memoria partekatuaz egindako ibilbideari buruzko mahai-inguruan parte hartu zuen Beitiak, Aizpea Otaegi (Errenteria), Agustín Valdivia (Lasarte-Oria), Mainer Lainez (Andoain), Maria Ubarretxena (Arrasate) eta Miren Koldobike Olabiderekin (Legazpi) batera. Errenteriakoa izan zen Memoria partekatu baterantz izeneko txosten bat landu zuen lehenengo udala, 2015ean, eta hango esperientzia ezagutu ondoren erabaki zuten bide hori lantzea Elgoibarren. “Oso xume hasi ginen: zinegotzi ginenak prestatuntza saio batzuk egiten hasi ginen, esperientziak konpartitzen. Legealdia



Arg.: Andres Krakenberger / Argituz

aldatzean beste kontsentsu bat sortu zen, eta hasi zen Bizikidetzeta Mahai bat antolatzen”, azaldu zuen Beitiak. “Ausardiaz” eta “kobentzituta” hasi zirela nabarmendu zuen Beitiak, baina zailtasunak ere izan zirela onartu zuen. “Legealdi berriarekin

jende berria sartu da, eta kostatzen zaigu diskrezio eta konfiantza giro hori mantentzea. Geldialdi bat dagoenean, kostatzen zaigu hurrengo pausoa ematea; kostatzen zaigu gure siglen txapela kentzea”.

Batxilergoan Ohorezko Matrikula lortu dute sei lagunek



Mireia Lili Gonzalezek, Mar-
kel Garate Arriolak, Ibone Man-
cisidor Etcheverryk, Eider Itxaso
Odriozolak, June Eguren Gome-
zek eta Olatz Alberdi Artolaza-
balek Ohorezko Matrikula
eskuratu dute Batxilergoan. Hala
jakinarazi dute Elgoibar BH In-
stitututik. Era berean, jakinarazi
dute selektibitatea egin duten
guztiek gaitu dutela. Batxil-
ergoan amaitu dutenentzako di-
ploma banaketa ekitaldia, gaur
egingo dute, Herriko Antzokian,
19:00etan. Ekitaldia, baina, au-
rreko urteetako baino xumeagoa
izango da eta ikasleek eta irakas-
leek bakarrik parte hartu ahal
izango dute.

Herriko 41 saltokik hartuko dute parte Elgoibar bizi-bizixa bono kanpainan

Elgoibar bizi-bizixa kanpainako bonoak salgai daude dagoeneko, eta uztailearen 30era arte trukatu ahal izango dira kanpainarekin bat egin duten dendetan, beti ere bonoak geratzen badira. Elgoibarko Udalak 30.000 euro jarri ditu kanpaina honetarako eta 3.000 merkataritza-bono atera dituzte. Gastuak gutxienez 5 eurokoak izan beharko dira, eta gehienez 60koak, eta erosleek %30eko deskontuak izango dituzte erosketa horietan. 41 saltokik hartuko dute parte kanpaina honetan, eta bakoitzean 71 bono daude eskuragai. Hauek dira saltokiak: G&M jantzi denda, Karkizano, Mikele, Farmazabal, Lagunak koltxoi denda, Ene Bada, Biok dekorazioa, Astigarraga Gys sport, Donna ileapaindegia, Cristina Garcia estetika, Garate jantzi denda, Garbiñe estetika, Kala, Goiara, Idama ileapaindegia, Iriondo kirolak, Pitxintxu, Fadak ileapaindegia, Bizkor bizikletak, Aranburu bitxitegia, Mara oinetakoak, Kima bioestetika, Iriondo altzariak, Ecenarro mertzeria, Arauri, Ipintza, Masumis, Tx4 gimnasioa, Maria ileapaindegia, Zazpi informatika, Nalai oinetakoak, Olaia estetika, Lete, Ikus optika, Sara jantzi denda, Iria moda, Ferpi moda, Moma, Agurtzane ileapaindegia, Uzuri optika.



Zabalik dago Elgoibarko bertso eskolan izena emateko epea

21/22 ikasturterako matrikulazio epea zabaldu du Elgoibarko bertso eskolak. Interesatuek Euskara Sailean eman beharko dute izena, uztailearen 22rako, 943 744 366 zenbakira deituta, edo emailaz euskara@elgoibar.eus helbidera idatzita. Datorren ikasturteko saioak 8-16 urte bitartekoentzat izango dira, eta astelehen arratsaldetan eskainiko dira, ordubetez, Aita Agirre kulturgunean. Irakasle lanetan, berriz, Eneko Beretxinaga soraluzetarra arituko da. Bertso Eskolako irakasle ez ezik, Elgoibarko Ikastolan eta Herri Eskolan bertso-gintza eta ahozketasuna lantzeko saioak ere ematen ditu, eta 250 ikasle ditu bere ardurapean. Egistasmo hauek biak Elgoibarko Udalak sustatzen ditu, Gipuzkoako Bertsozale elkartearekin lankidetzan, eta arduradunek esan dute bi ekimen horiei esker bertsozaletasunak gora egin duela Elgoibarren, eta horren erakusle dira Debabarreneko eskolarteko bertso-paper lehiaketako emaitzak:

- 2011-2012 urteetan jaiotakoak: 1. saria: Irati Arzamendi (Elgoibar Ikastola) / 2. saria: Julen Rodriguez (Elgoibar Ikastola)
- 2009-2010 urteetan jaiotakoak: 1. saria: Ibon Lizarralde Aizpurua (Elgoibar Ikastola) / 2. saria: Endika Gorosabel (Elgoibar Ikastola)
- 2007-2008 urteetan jaiotakoak: 1. saria: Maialen Arriola (Elgoibar Ikastola) / 2. saria: Naroa Muguruza (Elgoibar Ikastola)
- 2003-2006 urteetan jaiotakoak: 1. saria: Eneko Etxaniz (Elgoibar Ikastola)

Zazpi bisita gidatu antolatu dituzte Dolmenen Ibilbidera uztailetik urria bitarterako

Uztailearen 4an hasi eta urriaren 16a bitartean zazpi bisita gidatu antolatu ditu Debegeesak Karakate-Irurutzeta mendilerroko Dolmenen Ibilbidera. Bederatzi kilometroko bidean zazpi monumentu megalitiko ikusteko aukera izango da ibilaldi horietan. Seigarren aldian da era honetako bisita gidatuak antolatzen dituztela, baina aurrekoak ez bezala, hauetara joateko ordaindu egin beharko da. Helduek 5na euro ordaindu beharko dute, eta 12 urtez beherakoek, berriz, 3na euro. Bergaran, Elgoibarren eta Soraluzen bizi direnek, baina, deskontua izango dute: helduen sarrerak 2,5 euro balioko du eta umeenak, berriz, 1,5. Izena emateko 657 794 677 telefono zenbakira deitu behar da edota <https://www.debabarrenaturismo.com/eu/dolmenen-ibilbidea/bisita-gidatuak> web-gunean dagoen formularioa bete. Bisita antolatzeko, gutxienez bi laguneko taldeak osatu beharko dira. Bisita gidatuak honako egunetan izango dira: uztailearen 4an (euskaraz), uztailearen 18an (gaztelaniaz), abuztuaren 1ean (euskaraz), abuztuaren 18an (gaztelaniaz), irailaren 5ean (gaztelaniaz), urriaren 3an (euskaraz) eta urriaren 16an (gaztelaniaz). Era berean, jakinarazi dute aurten indusketa lanekin jarraituko dutela Aitzpuruko Zabalako dolmenaren ondoan aurkitu zuten txabolan. Agirreburuko dolmena berritzeko lanak ere egingo dituzte. Dolmen hori 2019an industu zuten. Horrez gain, 2019an industu zuten Frantsebasoako dolmenaren inguruan itxitura egin eta interpretazio panelak ere jarriko dituzte, eta mokadu bat egiteko lekua ere atonduko dute Karakateko aparkaleku inguruan.

20 urteko kartzela zigorra ezarri diote Elgoibarko hilketaren errudunari



20 urteko kartzela zigorra ezarri diote 2019an Pablo Acuña hil eta haren neska-laguna larri zauritu zuen gizonari. Epaiak 16 urteko espetxe zigorra ezarri dio akusatuari, "azpikeriaz erailteagatik", eta beste 4 urtekoa, "tresna arriskutsuz eta azpikeriaz" lesioak eragiteagatik.

Kondenatua joan den hilean epaitu zuten gertaera horiengatik, eta epai-mahaiak delitu horien erruduntzat jo zuen ekainaren 7an. Berak errudun zela onartu zuen, baina nahita hil zuela ukatu zuen.

Hilketa 2019ko maiatzaren 11ko goizaldean gertatu zen. Elgoibarko taberna batean hildakoarekin eztabaida izan eta ordu batzuetara, auzipetuak bi aldiz sastakatu zuen, neska-lagunari agur esaten ari zela, bera bizi zen erai-kineko ataritik gertu. Gizonari eraso baino lehen, erruztatuak hiru labankada eman zizkion haren neskalagunari, eta larri zauritu zuen.

Herri Eskolako eskolaurreko eraikinari, estalpe handiagoa

Herri Eskolak Urazandi parkean duen eraikinaren estalpea handitzeko lanak hasi zituzten astelehenean. 2019. urteko aurrekontu partehartzaileetan herritarrek aukeratutako proiektuetako bat izan zen hau. Udaletik jakinarazi dute estalpe berriak gutxi gorabehera 55 metro koadroko espazio gehiago estaliko duela. Asketa eraikuntza enpresa ari da lan horietan, eta bi hilabeteko epean, ikasturte berria hasten denerrako, amaitzeko baldintza jarri diete. Estalpea egiteko lanek 44.052,83 euroko aurrekontua izango dute, BEZ barne.



Pentsio sistema publikoa aldarrikatu dute dozenaka lagunek Elgoibarren

Elgoibarko Pentsiodunen Mugimenduak deituta, dozenaka lagun elkartu ziren astelehenean Kalegoen plazan pentsio duinak eskatzeko elkarretaratzean. Gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea eskatu zuten batetik, eta bestetik, soldatetan eta pentsioetan dagoen genero-arrakala amaitzea, eta horretarako, besteak beste, ezkontidearen pentsioaren %100 izatea alarguntza-pentsiorako. Laburbilduz, pentsio sistema publikoaren alde eta murrizketen kontra batu ziren.



Irailean jarriko dute martxan Pedro Mugurutza etorbideari izena aldatzeko partaidetza prozesua

Elgoibarko Udalak irailean abiatuko du Pedro Mugurutza etorbideari izena aldatzeko partaidetza prozesua. Bi fase izango ditu: Lehenengo fasean izen-proposamenak aurkeztuko dira, eta, bigarrenean, azterketa tekniko bat egin ondoren, bizikidetzamahiarentzat bideragarrienak diren eta Elgoibarko kale-izendegian parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten aukerak bozkatuko dituzte herritarrek. Irailean jasoko dira izen proposamenak eta aukeraketa azaroan abiaraziko dute. Emaitza loteslea izango da. Eusko Jaurlaritzak memoria demokratikoari buruzko lege bat idazten ari da, eta lege horrek babestuko du 1936ko altxamenduari edo erregimen frankistari lotutako edo haren aldeko pertsonen lotutako erreferentzia oro ezabatzea. Testuinguru horretan, Pedro Mugurutza garaiko arkitektoa eta erregimenaren kongresuko Legebiltzarkideari buruzko aipamena Elgoibarko kaleetatik kendu beharreko elementutzat hartuko litzateke.

Basque Health Cluster erakundeak Jose Miguel Azkoitia Saria sortu du, Elgoibarko enpresa-gizonaren omenez

2018ko otsailaren 6an hil zen Jose Miguel Azkoitia Artetxe elgoibartarra, 57 urte zituela. Hil aurreko urteetan Bio-Osasun sektorea aktibatzeke lanean jardun zen, eta lan horri aitortza egin dio orain Basque Health Cluster erakundeak, sariketa bati bere izena jarritz. Sari honen helburua da Euskadiko Biozientzien eta Osasunaren sektorea sustatzeko lanean diharduten pertsona edo erakundeak saritzea. Osasunaren Euskal Klusterrak bi urtean behin emango du saria.

Jose Miguel Azkoitia Ingeniari industrialara zen Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan lizentziatua, eta Doktorea Euskal Herriko Unibertsitatean. Hainbat jarduera akademiko garatu zituen, besteak beste, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Madrilgo Konplutense Unibertsitatearekin. Bere iker-tzaile ibilbidea ingeniartzita biomedikoaren, osasun arloko teknologien, robotikaren eta IKTen inguruan garatu zuen. Horrez gain, irakasle, ikertzaile eta kudeatzaile jarduera uz-tartu zituen zientzia eta teknologiaren dibulgazioarekin. Tecnaliako osasun alorraren sustatzailea eta garapen zuzendaria ere izan zen. Luis Goenaga Fatronik enpresako sortzaile eta zuzendari izandakoak lankide eta lagun izan zuen Jose Miguel Azkoitia. Mondragon taldean zebilen orduan Goenaga, kooperatiba munduan: "1987an jarri nuen martxan Fatronik enpresa Elgoibarren, eta Josemi izan zen enpresarako hirugarren fitxajea". Teknikerren lan egiten zuen orduan Jose Miguel Azkoitiak, Luisen anaia Iñaki Goenagarekin batera, eta hark egin zituen bitartekari lanak. Fatronik erreminta makinaren sektoreko I+D enpresa moduan jaio zen. 98-99 urteen bueltan fundazio bilakatu zen, eta ikerkuntzarako eta gargarakerako zentro teknologiko modura funtzionatzen hasi zen. Robotika, mekatronika eta sektoreko beste hainbat alorretara zabaldu zen Fatronik, eta 2003-2004. urteen bueltan osasunaren sektorera jauzi egitea proposatu zuen Jose Miguel



Azkoitiak: "Harrituta geratu ginen, baina berak argi ikusi zuen. Zahartzaroak kezkatzen zuen Josemi, gizartea zahartzen ari zen eta zahartzaroari begira ekarpen handia egin genezakeela uste zuen". Horrela sortu zuten osasun adarra Fatronik barruan, eta Jose Miguel Azkoitia izan zen adar horren sustatzaile nagusia: "Bisionarioa zen, etorkizunari aurre hartzeko gaitasuna zeukan, eta dena isilean egiten zuen, sekulako umiltasunez".

2008ra arte jardun zuen enpresak Fatronik izenarekin, Tecnalia sortu zuten arte. Euskadiko hamar ikerketa zentro batu ziren Tecnalia sortzeko; Arabako bi, Gipuzkoako lau eta Bizkaiko lau. Tecnaliaren sorrera horretan "pieza ezinbestekoa" izan zen Azkoitia: "Gizon umila zen, oso langilea. Lanean ari zela, isilean, doktoretza ikasketak egin zituen eta doktore titulua atera zuen".

2008an hartu zuen erretiroa Luis Goenagak, hain justu ere, Tecnalia sortu zutenean, baina gero ere, hainbat urtez jarraitu zuen Tecnaliari lotuta, Jose Miguelek eskatuta: "Lagun handiak ginen, eta jubilatuta behar nuenean eskatu zidan Tecnaliako zuzendaritza taldean sartzeko, eta osasun adarrean jarraitzeko eskatu zidan, eta halaxe egin nuen, batez ere, bera zebileako buru-belarriri proiektu hura sustatzen". Azken unera arte izan ziren lagunak Goenaga eta Azkoitia, eta harreman estua izan zuten:

"Hil aurreko egunean hitz egin genuen telefonoz. Datu batzuk eskatu zizkidan eta hurrengo egunerako agindu nizkion. Lanetik irten, eta korrika egitera joan zen Josemi, hori zelako bere zaletasunetako bat. Ez zen hurrengo egunik egon. Ezin nuen sinetsi".

Enpresa munduaz aparte, herrigintzan ere aritu zen Jose Miguel Azkoitia. Mintxeta atletismo taldean zebilen, musika bandan... "herrian oso integratuta zegoen, eta oso maitatua zen. Merezitako omenaldia egin dio Osasun Klusterrak sari honekin".

▶ IKER MAGUREGI

IBILKARI EKIMENEO
ARDURADUNA

2009an jarri zuen martxan Ibilkari egitasmoa Iker Maguregik (Elgoibar, 1976). *Car sharing* edo autoa partekatzeke helburua duen egitasmoa da Ibilkari. Autoa gutxiago erabilia, ingurumena zaintzea du egitasmo honek oinarrian, kutsadura murriztea. Europan oso zabalduta dago eredu hau, eta handik ekarri zuen Maguregik ere. Alemanian ibili izan zenaldi batez, eta han ikusitakotik hasi zen ideia hau garatzen Euskal Herrirako. Bilbon eta hango inguruetan ematen du zerbitzua Ibilkarik. 15 ibilgailu dituzte Bizkaiko hainbat eremutan, eta 200 erabiltzaile inguru.

- AINHOA ANDONEGI -

♦ Ibilkari ekimenaren sortzaile eta arduraduna zara. Kontaguzu, zer da Ibilkari?

Car sharing edo autoa partekatzearen kontzeptuarekin sinistuta hasi nintzen proiektu hau gauzatzen. Azken batean, pertsona talde batek ibilgailuak modu antolatua eta egituratuan erabiltzean datza kontzeptua.

♦ Nola bururatu zitzaizun ideia?

Europan ezagutu nuen *car sharing*a. Alemanian zehar ibili nintzen garai batean, eta ordurako kontzeptu hau zabalduta zegoen han, eta baita Suitzan eta Herbehereetan ere. Ideia honekin maiteminduta geratu nintzen. Ingeniaritza ikasketak amaitu nituenean hasi nintzen egitasmoari forma ematen, eta proiektua aurkeztu nuen enpresak sortzen laguntzen duten erakunde horietako batera. Markinan egin nituen ikasketak eta hango Azaro fundazioan aurkeztu nuen. Gustatu zitzaizen ideia eta aurrera egin nuen. 2000. urtean-edo ezagutu nuen hau, eta bost urte geroago aurkeztu nuen proposa-



“Autoa noizbehinka behar duen jendearentzako alternatiba da ‘car sharing’-a”

mena. Bartzelonan ere hasiak ziren ordu-rako horrelako ideiak garatzen, eta horrek ere nolabait lagundu zion nire proiektuari. Dirulaguntza bat eman zidaten egitasmoa martxan jartzeko. *Car sharing*-ak dituen elementu ekologikoek piztu zidaten interesagatik iritsi nintzen hona. Jarduera ekonomikoan ere banuen interesa, baina bereziki, ingurumena zaintzearen kontzientziak deitzen zidan. Testuinguru horretan sortu nuen Eusko Car Sharing proiektua, eta gerora elkarre bihurtu genuen. Ez genuen negozio huts moduan ikusten; hau da, garraio publikoari lotuta, mugikortasunaren kultura aldatzera zetorren proiektu bat ikusten genuen, eta horregatik sortu genuen elkarrea. Zerbitzua martxan jartzea nahi izan genuen, baina Lurreko Garraioaren Antolamenduari buruzko legeak (LOTT) enpresa izatea eskatzen zuen, eta horrela sortu genuen Ibilkari ekimena. Ibilkari hitza nomadekin lotu genuen. Etxerik gabeko nomada moduan. Gure kasuan, autorik gabeko nomadak dira erabiltzaileak.

♦ Zein motako erabiltzaileentzat da *car sharing* zerbitzua?

Autoa noizbehinka behar duen jendearentzako alternatiba da. Azken batean, autoa jabetzan eduki beharrean, auto bat daukazu eskura, behar duzunerako. Autoa erosteko zalantzan dagoen jendeari gomendatuko nioke zerbitzu hau probatzea lehenengo. Agian nahikoa zaio, eta dirua aurreztuko du. Autoa erosteko aukera beti dago hor, baina diru hori aurrezteko aukera ere interesgarria da.

♦ Nola funtzionatzen du Ibilkari?

24 orduz dago erabilgarri zerbitzua, eta norberak behar duenerako erreserbatu dezake ibilgailua, beti ere, libre badago. Oso gutxitan tokatu zait bi pertsonak ordu berean ibilgailu berbera behar izatea, eta horrelakoren bat gertatu izan denean, topatu izan ditugu irtenbideak. Normalean ez dugu arazorik izaten. Behin erreserba eginda, autoa aparkatuta dagoen tokira joan behar da, eta erabili ondoren, leku berean utzi. Ibilkari aparkaleku batzuk ditu beretzako gordeta, beraz, ez dago aparkatzeko leku bila ibili beharrik. Giltzik

ez da behar autoa zabaltzeko, txartel batekin edo sakelako telefonoan deskargatutako aplikazio batekin ireki daiteke. Autoa martxan jartzeko giltza auto barruan aurkituko du erabiltzaileak. Auto bat daukazu zure eskura, baina ez zara haren jabe eta ordaintzen duzu erabiltzen duzuna. Orduko eta egindako distantziaren arabera ezartzen da prezioa.

“Auto bat daukazu zure eskura, baina ez zara haren jabe eta ordaintzen duzu erabiltzen duzuna”

♦ Ibilkari auto bat erreserbatu nahi duenak zer egin behar du?

Gu ez gara autoak alokatzen dituen enpresa arrunta. Guk nahi dugu gurera iristen dena gurekin geratzea; hau da, bizitza estilo bat sortzea. Ez gara Euskal Herrira oporretara datozen turistei autoa alokatzeko enpresa. Erabiltzaileek eskubide eta betebeharrak dituzte, eta nahiago dugu konfiantzazko jendearekin lan egitea. Atzeritik etortzen den turista batekin arazoren bat izanez gero, nola lokalizatu behar dugu? Hura joango da berri bere herrialdera eta arazoa gurea izango da. Horregatik eskatzen dugu webgunean alta ematea, identifikatzea eta kuota bat ordaintzea zerbitzua erabiltzeagatik. Bezeroekin konfiantzazko harremana izatea gustatzen zaigu. Horrela aritzen gara, eta hamar urtean ez dugu arazo larririk izan inorekin. Behin alta emanda, autoa erreserbatzen da, eta listo. Ez dago mugarik. Erreserbatu daiteke ordubeterako, egun osorako edo baita astebeterako ere. Opor sasoiaren, esaterako, ohikoa da egun bat baino gehiagorako erreserbatzea.

♦ Zein prezio dauka Ibilkari auto bat erabiltzeak?

3 euro kobratzen dugu ordua, BEZ barne, eta kilometroko 0,26 euro. Erregea ez da ordaintzen, kilometroaren pre-

zioan sartzen da. Hortaz, prezioa jartzeko, denbora eta kilometro kopurua kalkulatu da. Erabiltzaileentzako eta guretzako prezio orekatua jarri behar da, bestela zerbitzuak porrot egingo du. Auto garestiak erosi eta prezio altua jarriz gero, inork ez luke erabiliko, eta aldiz, zerbitzua oso merke jarriko bagenu, zerbitzua defizitarioa izango litzateke. Oreka horretan asmatzea da klabea, zerbitzuak denboran iraun dezan.

♦ Zer abantaila ditu *car sharing*-ak erabiltzaileentzat?

Autoa erostea garesti iritertzen da, eta erostea bera izaten da askotan errazena. Autoa erostea kostu osoaren %80 izan daiteke. Jende askok uste du autoa erostea gastu guztia eginda dagoela eta gasolina botatzea bakarrik geratzen dela, baina gastu asko ditu autoa jabetzan edukitzeak. Horrez gain, etxe askotan bi auto behar izaten dira une batzuetan, baina familia askorentzat bi auto mantentzea ezinezkoa da. Autoa erosteko aukerarik ez duten horientzako alternatiba egokia da *car sharing*-a. Jende askok bere mugikortasun beharrak garraio publikoarekin asetzen ditu, hirietan batez ere. Baina badaude egoera jakin batzuk garraio publikoarekin asetu ezin direnak. Demagun medikua duzula ordu zehatz batean, leku jakin batean, eta garraio publikoan iristeko ez duzula aukerarik. Egoera horretan guk auto bat jartzen dugu erabiltzailearen eskura, eta hori askoz merkeagoa da autoa jabetzan edukitzea baino. Horrez gain, sistema honekin autoaren inertziatzko erabilera gutxitu egiten da. Hau da, askotan, autoa jabetzan duenak behar-beharrezkoa ez duenean ere erabiltzen du autoa. Jabetzan daukanez autoa, ez da saiatzen garraio publikoa erabiltzen, edo beste alternatibaren bat aurkitzen. Autoa dugunok askotan pentsatu gabe erabiltzen dugu autoa, inertziatz. Sistema honekin autoaren erabilera zentzuduna sustatzen da eta mugikortasun ohiturak aldatzen ditu, iraunkortasunaren mesedetan. Nik badakit gure erabiltzaileentzat gurea azken aukera dela. Hau da, beste

alternatiba guztiak aztertu eta denak baztertu ostean erabakitzen dute partekatutako autoa hartzea. Gure helburuak dira gizarteari aukera berri bat eskaintzea mugikortasunari dagokionez, eta bestetik, autoarekiko daukagun menpekotasuna gutxitzea eta iraunkoarragoak izatea.

♦ Garraio publikoarekin nola uztaizten da zerbitzu hau?

Garraio publikoaren osagarri da. Garraio publikoarekin ezin zara toki guzietara iritsi, muga ekonomiko eta fisikoak dituelako. Autoa eta garraio publikoa lehian jarriko bagenu, denok dakigu nork irabaziko lukeen, bereziki, autoak eskaintzen duen malgutasunagatik. Europan garraio publikoaren osagarri moduan ulertzen dute zerbitzu hau, eta erakunde askok egin dute honen aldeko apustua. Alemanian 180 erakunde daude *car sharing*-a sustatzen.

♦ Zein motako autoak erabiltzen dituzte?

Izan daitezke elektrikoak edo konbustioak. Guk konbustioak ditugu. Azken batean, zerbitzuak ere iraunkorra izan behar du, eta horretarako prezioak denen poltsikorako modukoak jarri behar dira. Auto elektrikoek 30.000 eurotik gora balio dute, eta ondorioz ordua askoz garestiago kobratu beharko genuke. Eta autoak izan daitezke erakundearenak edo partikularrak. Egon daitezke adibidez familia batzuk bigarren autoa gutxi erabiltzen dutenak eta erabaki dezakete auto hori auzotarrekin edo gertukoekin partekatzea. Hemen ez da oso ohikoa, baina Europako herrialde batzuetan egiten da eta arrakasta handia dauka. Gauzak partekatzearen kultura Europan askoz zabaldago dago hemen baino. Maila intelektualean 2050ean gaude, baina pragmatikoan 80ko hamarkadan gaude oraindik hemen. Ez zait hitz hau gustatzen, baina Euskal Herrian oso kontserbadoreak gara zentzu horretan. Einsteinek esaten zuen errazagoa zela atomo bat suntsitzea, ohiturak edo kultura aldatzea baino.

♦ Auto elektrikoak izango dira zure uestez nagusi etorkizunean?

Indartsu sartuko da elektrikoak, baina denbora beharko du oraindik. Lege aldetik erabakia hartuta dago eta hemendik urte batzuetara elektriko bideratuko gaituzte. Konbustio motorrak saltzeko zailtasunak jarriko dituzte, eta klima zaintzeko kontzientziazio honen aurrean elektrikoak aldaketa etorriko da. Merkatuaren aldetik baino gehiago, legediatik etorriko da aldaketa. Tendentzia horra doa, baina oraindik oso garestiak dira. Bateriak badirudi gero eta merkeagoak izango direla, baina kargaren asuntua ere hobetu beharra dago oraindik. Garajea duenak, autoa kargatzeko aukera dauka gabe eta etetik tankea beteta irtengo da hurrengo egunean, baina arazoa da hemen auto askok kalean egiten dutela lo. Autoak kargatzeko sistema hobetzea garrantzitsua da.

“Sistema honekin autoaren erabilera zentzuduna sustatzen da eta mugikortasun ohiturak aldatzen laguntzen du”

♦ Non ematen du zerbitzua ibilkarik?

Bilbon hasi ginen, bi autorekin, eta une honetan sei ditugu. Uribe Kostara ere zabaldu genuen zerbitzua, Ukanauto ize-narekin eta baita Arratiara ere. Guztira 15 auto ditugu Bizkaian. Poliki ari gara zabaltzen. Partekatzearen ideia jendeari asko gustatzen zaio, interesgarria iruditzen zaio, baina kosta egiten zaio pausoa ematea. Jende askori beldurra ematen dio autorik gabe bizitzeak. Beste herrialde batzuetan oso hedatuta dago kultura hau, baina hemen amildegi moduko bat ikusten dugu auto gabe geratzea. Amsterdamen, esaterako, egongo dira agian bi mila auto *car sharing*-a egiteko, eta 600.000 biztanle dira! Bilbon 300.000 dira, baina noiz iritsiko gara mila auto eduki-

tzer partekatzeko? Gizartearen pentsamoldea aldatzen ez den bitartean, oso zaila daukagu. Azken batean gu gara gidariak, eta gidarien ohiturak aldatu ezean kontzeptu hau ez da zabalduko. Herri txikitian ere posible izango litzateke zerbitzu hau martxan jartzea, baina horretarako Udalen babesa beharko genuke, hasieran behintzat.

♦ Gaur egun *car sharing* kontzeptua ez zaigu arrotza egiten, baina zu 2005ean hasi zinen gai honekin. Aurrerakoia izan zinela esango zenuke?

Horrela tokatu zen, baina egia da aurkezten genuen toki guzietan nahastu egiten zutela *car sharing* kontzeptua bidaia partekatzearen kontzeptuarekin. Anaiak dira, eta biek dute partekatzea oinarrian, baina kontzeptu desberdinak dira. Gure kasuan ez da elkarrekin bidaizatzen. Bidaia konpartituan hainbat lagunek elkarrekin egiten dute bidaia, eta gastuak konpartitzen dituzte, baina gure kasuan ez. Hemen auto bat dago, kolektibo baten esku eta autoa da partekatzen dena.

♦ Auto autonomoei buruzko berriak ere entzun ditugu, hau da, gidaririk gabe funtzionatzen duten autoenak. Laster beraz, gidabaimenik ere ez da beharko autoa “gidatzeko”?

Hori beste maila bateko berrikuntza da, baina oraindik lan asko dago alor horretan. Estatu Batuetan badabilta auto batzuk probatzen. Bost fase gainditu behar dituzte eta oraindik hirugarren fasean daudela uste dut. Ez dakit hori modu masiboan ez dakit ikusiko dugun. Badakit gidariren bati bihotzekoak jo eta autoak eraman duela ospitalera, baina kontrako arazoak ere badaude hor, askotan informatikak konpondu ezin dituenak. Adibidez, errepidera baloi baten atzetik bat-batean ume bat irteten bada, zer egin behar du autoak? Umea harrapatu ala umea salbatzeagatik zuhaitz baten kontra jo eta barruan doan pertsona zauritu? Kasu horiek programatzeko erabakiak hartzea ez da erraza. Horretan ere lanean ari dira, eta horietika ere sartzen da.



Jose Ramon Cabrera

Iñaki Goitia



A driatikoa, Joniarra, Baltikoa, Kaspiarra, Arabiakoa edo Marmarakoa itsaso bera dira funtsean, Gobi, Kalahari, Sonora, Sáhara, Namib eta Guajira ere basamortu bera diren bezala. Are gehiago, itsasoa zein basamortua, basamortua zein itsasoa, dena da bat. Zein ezberdintasun dago bada zure itsasoaren eta nire basamortuaren artean? Biak ala biak, uneoro amildegi baten ertzean gaudela gogorarazten digute. Nire oasia, zure ur pixkat izatea; zure desira, nire magalean lur hartzea. Lur eta ur, txanpon bereko bi aurpegi. Lurrak ura behar du, gauak eguna behar duen bezala. Esan gabe doa alderantziz ere premia bera dagoela.

Baina orain hor zaude, ez aurrera, ez atzera. Edo aurrera eta atzera, behin eta berriro, dantza isekari eta gupidagabe bat bai-

litzan. Nire egarria asetzeko gai zarela adierazi nahian edo. Jakingo ez banu bezala... Gauza bera baikara, berriro diotsut. Bizitza eta heriotza; kontrakoa baina berbera, batak besteari zor dio esentzia zein existentzia. Orduan, zertara dator zure erresistentzia hau? Zertara norberaren izatearen ukazio hau? Sedukzio amaigabe bati erantzuten dio edota mendeku egarriz zatozkit? Ni naiz hemen, baina, zure egarri dena, basoa mortu bilakatu zenidanetik. Guztiarekin ere, jakina da ez dagoela zure bihotza baino mortuagorik, aspaldi harri bihurtua memoriaren ahanzturan. Eten dezagun dualtasunaren kate absurdo hau.

Halabeharrari uko egiten jarrai genezake, baina bidea beti bakarra da, norabide bi dituen arren. Nire basamortua zure itsaso izan zen antzina. Eta horrela izaten amaituko du, betiereko itzulerara bati jarraikiz. Eman amore, bada, laztana. Zatoz eta urtu zaitetz nire besoen lehorrean.

*“Ni naiz hemen, baina, zure egarri dena,
basoa mortu bilakatu zenidanetik”*



Hasi dira udalekuak!

Astlehenean sartu ginen udan, eta udarekin batera iritsi dira udalekuak ere. Astlehenean hasi eta uzta-laren 16ra bitartean aisialdi euskaldunaz gozatzeko aukera izango dute 300dik gora umek Elgoibarren eta Mendaron. Euskara hutsean izango da eskaintza, eta ondorengo balio hauetan ardatzuko da aisia hezitzailea: hezkidetzaz, sormena, inklusioa eta parte-hartzea. Horrez gain, emozioak landuko dituzte, eta naturarekiko errespetua, herrigintza, eta jolas librea sustatuko dira.



Mendaro





Elgoibar



Elgoibarren, 2 eta 12 urte bitarteko haurrentzako eskaintza prestatu dute elkarlanean Elgoibarko Izarrak eta Udal Ludotekak (Zehar, Heziketa eta Programak elkarteak). Guztira, 246 ume daude izena emanda, bi txandatan, eta haiekin batera, 34 hezitzaile ariko dira lanean. Mendaron ere, adin tarte bererako udaleku irekiak antolatu ditu Udalak, eta azkeneko urteetan bezala, Elgoibarko Izarrak kudeatuko ditu. 70 ume daude izena emanda guztira, eta zazpi hezitzaile arituko dira haiekin.



▶ BEÑAT FERNANDEZ

TXIRRINDULARIA

Elgoibarko Lagun Taldearen eskutik sartu zen txirrindularitzan Beñat Fernandez (Mendaro, 2003), eta bertan jarraitzen du, Laboral Kutxaren babesletzarekin. Bigarren urtea du jubeniletan, afizionatuetara salto egin aurreko azken urtea bestera esanda, eta joan zen asteburuan Bocage et de L'Erneeko Tourrean hartu zuen parte, Gipuzkoako selezioarekin. Gaur, berriz, Gipuzkoako Itzulian izango da, "dena emateko gogoz". Podiumik ez du zapaldu artean, baina bada nor tropelean, eta sinistuta dago ahaleginak emango duela fruitua. Nahi luke lasterketaren bat irabaztea, eta Mendaroko Javier Ezenarro Oroitzarreko podiumean egotearekin egiten du amets.

- AINARA ARGOITIA -



♦ Bigarren urtea duzu jubeniletan, eta emaitzei erreparatuz gero, sasoiko zabilzala esan daiteke. Noiztik diharduzu txirrindularitzan?

Bizikletan hasi aurretik futbolean ibili nintzen, umetatik kadeteetara arte. DBH3n hasi nintzen txirrindularitzan, kadeteetako lehenengo urtean [bi urte dira kadeteetan eta beste bi jubeniletan]. Beti izan dut afizioa eta beti disfrutatu izan dut bizikletan, eta saltoa eman nuen. Eta egia esan, oso gustura nabil, bereziki aurten. Esaten dute, bai, jubeniletakoak direla urterik politenak txirrindulari batentzat, eta ni neu behintzat, sekula ez beste ari naiz gozatzen. Lasterketa bat ondo amaitzea sekulako satisfazioa da. Futbolak baino gehiago betetzen nau honek, futbolean partida bat irabazteak ez zidalako orain lasterketa txukun bat egiteak ematen didan poz hori ematen. Futbolean egun eskasagoa izanda ere, ez da horrenbeste igartzen, baina bizikletan norberak egin behar du. Gogorragoa da, baina

“Ametsaren parekoa litzateke Mendaroko lasterketa irabaztea”

beharbada horregatik da poza ere handiagoa, dena kostatzen delako gehiago.

♦ Txirrindularitzarako afizio handia dago Mendaron. Garai batean izan zen taldetxo bat jubeniletan lehiatzen, eta izan dira geroago profesionalen lehiatzera iritsi diren beste bi ere: Iñigo Lazkano eta Beñat Urain. Azkeneko urteetan, baina, sikute halako bat izan da, eta orain bada halako loralditxo bat berriz. Zerk eraginda?

Bai, hala izaten dira kontuak. Elgoibarren taldea egoteak eta eskoletan egindako lanak lagundu du suspertze horretan. Kadeteetako bigarren mailan dabil Aritz Esnaola mendararra, bere lehenengo urtea badu ere txirrindularitzan, eta jubeniletan ni, eta beheragoko taldeetan ere badatoz gazteagoak. Gauza ona da hori. Nik uste dut herrian edo gertuan erreferentziak izateak laguntzen duela, eta baita eskolan txirrindularitza probatzeko au-



kera emateak ere. Nik bigarren hori ez dut izan, adibidez, eta pena da.

♦ Zenbat denbora eskaintzen diozu txirrindularitzari astean?

Batxilergoko eskolak bukatuta, astean zazpi egunez entrenatzen naiz orain, baina bestela ere, sei bat egunez entrenatzen nintzen. Debarrena taldeko Galder Lasuenek jartzen dizkigu gutxi gorabeherako entrenamenduak. Gozitzen ari naiz jubeniletan. Gero etorriko dira kontuak, afizionatuetan. Beste maila bateko lasterketak izango ditut datorren urtetik aurrera, desnibel handiagokoak, azkarragoak eta presioa ere dezentez handiagoa izango da. Jubeniletan puntan ibili diren asko gelditu dira atzean afizionatuetan, eta batzuk iritsi ere ez dira egin.

♦ Kadeteetan lotsatiago ikusten zitzazun tropelean, lekua hartu ezinda bezala. Orain, jubeniletan, beste konfiantza batekin igartzen zaizu. Zerk eragin du aldaketa?

Konfinamenduan aldatu nuen txipa. Lehen, entrenatu bai, baina gero lasterketetan ez nuen dena ematen, beldur halako batek lotuta ninduelako. Baina konturatu nintzen ez zuela merezi entrenamenduak serio hartzeak gero lasterketan muturra sartzen saiatzen ez banintzen. Nik uste dut, lehen, beldur handiagorekin irteten nintzela lasterketetan, baina konturatu nintzen tropelean beldurrez ibiltzeko ez zuela merezi horrenbesteko sakrifizioa egiterik. Tropelean ertzetan joaten nintzen beti, baina orain, saiatzen naiz, erdian lekua bilatzen. Ahalduntze halako bat izan da eta nik itxialdiarekin lotzen dut. Esaten dute kadeteetan ikasi beharreko kontua izaten dela hori ere: tropelean lekua hartzea. Ez da, baina, erraza tropelean ukondo ukondo joatea eta horregatik izaten dira kadeteetan ere horrenbeste eroriko. Jubeniletan gehiago da arriskatzea. Ezin da, adibidez, goranzkoan irabazitako denbora beheranzkoan galdu eta tentsio hori igarri-igarrikoa da. Nik, momentuan, ez dut eroririk izan eta behar bada horregatik ez daukat horrenbesteko beldurrik jaitsieretan.

♦ Zer ezaugarritako txirrindularia zara? Zein duzu erreferentetzat?

Aldapa gora moldatzen naiz ni ondoen. Gorpuzkera arinekoa naiz, eta gora nahiko itxuran ibiltzen naiz. Profesionaletan, Mikel Landa izan da beti nire erreferentea. Landak beti ematen du ikuskizuna. Daukan bitartean dena ematen du eta hori eskertzekoa da. Zorte txarra ere izan du, eta azkena Giroan. Bere bizi-zako Giroa izan behar zen hau eta bosgarren etapen jausi eta etxera itzuli beharra izan zuen. Pena handia hartu nuen. 'Egindako lan guztia, alferrik', pentsatu nuen.

“Taldea bat topatu beharko nuke datorren urterako, eta badakit dena eta bi eman behar dudala aurten horretarako”

♦ Joan zen asteburuan Frantzia izan zinen Gipuzkoako selekzioarekin. Zer moduz ikusi zenuen zeure burua?

Niretzat izugarria izan zen hautatzaileren mezua jasotzea. Gipuzkoan aurrealdean ibiltzen garen hogeit bat txirrindulari deitu gintuzten bilera batera, baina orduan ez ziguten esan Frantziara joango ginenik. Azaldu ziguten selekzioaren funtzionamendua eta esan ziguten hasiko zirela batzuei deika. Juani [Juan Ramon Bellon], gure taldeko zuzendariari, iritsi zitzaion mezua eta hark jakinarazi zidan Frantziarako hautatu nindutela. Sekulako poza hartu nuen. Orain arte ez dut emaitza bakar bat lortu eta aukera hori ematea podiumera igotzea bestekoa izan zen niretzat. Frantzia konturatu naiz gai naizela lehiatzeko, baina egia da oso gogorra egin zaigula, guk sekula ez dugulako horrenbeste kilometroko lasterketarik jokatu hemen, eta are gutxiago halako erritmoan. Konturatu naiz, era berean,

frantziarrak gu baino gehiago direla; koska bat gorago daudela. Lehenengo etapa 130 kilometrokoa izan zen, eta hemen, gehienez ere, 90 kilometrokoak izaten dira gure lasterketak. Biharamunean, berriz, 16 kilometroko erlojupeko bat izan genuen goizean, eta arratsaldean, 110 kilometroko etapa. Hemen, urtean erlojupeko bakarra jokatu dugu, baina han bistan da ohituago daudela. Baina, hala ere, pozik itzuli nintzen, bukatzeko gai izan nintzelako eta errekupe-ratio ona daukadala jabetu nintzelako. Lauan gu baino gehiago dira gure adinoko txirrindulari frantziarrak, baina mendate bat sartuz gero, sufritzen dute. Gu, aldiz, ohituago gaude mendateetara eta hor badugu estu hartzeko aukera; ikusi dugu han ere nola gelditzen ziren atzean aldapak hasitakoan.

♦ Taldeko kirola da txirrindularitza berez, baina bi lagun baino ez zarete Laboral Kutxan, jubeniletan. Normalean, sei-zortzi bat badira beste taldeetan. Nola daramazu hori?

Gu bi lagun gara: Jokin Amorrosta eibartarra eta ni. Eta ez gara taldea, lasterketetan ezin dugulako gure autoa eraman. Eta hori ez da gozoa, ez. Beste talde batzuekin negoziatu behar dugu gorpil bat aldatu beharra izanez gero ere, edo bestela, lasterketako auto neutroarekin. Entrenatzaile gabe irteten gara lasterketetan. Errepide bazterretik esaten digutenearekin ibili behar gara eta tropelean ez dugu inolako erreferentziarik izaten. Taldearen babesik ere ez dugu. Taldeak sartu dezake taldekide bat ihesean; egin ditzake taldeburuarentzako lanak, baina guk geurea egin behar dugu. Bai, babes horren falta igartzen dut lasterketa hasi aurretik eta ondoren ere bai, dena eman arren lasterketa amaitzea denean sari handiena. Gurasoen babes dugu guk, eta eskertu nahi diet. Aita ibiltzen zait mekaniko lanetan, txofer lanetan, eta ama eta biek egiten dizkidate psikologo lanak, lasterketetatik burumakur itzultzen naizenetan. Kadeteetan sei lagun ginen gu taldean, baina jubeniletarako laga zuten besteek. Txirrindularitzak hori



dauka. Gogor entrenatu behar da, gero lasterketan 50. egiteko igual, eta hori eramaten ez da erraza. Gutxiago egin eta emaitza jasotzera ohituago gaude gaur egun eta normala da askok hau uztea.

♦ Azkeneko urtea duzu hau Elgoibarko taldean. Datorren urtera begira, zer?

Talde bat topatu beharko nuke datorren urterako, eta horretarako, badakit dena eta bi eman behar dudala aurten. Beti ere bai, baina aurten gehiago. Talde batzuk badaude, eta itxaropena badut lekuren bat topatzeko. Aldaketa handia izango da niretzat datorren urtean. Ingeniaritza ikasketak hasiko ditut eta zailagoa egingo zait eskola eta entrenamenduak uztartzea, baina gogo handiz nago eta moldatuko naiz. Gure kintakoen artean, hori bai, sekulako maila dago eta Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioak ere aitortzen du hori. Oiartzunen, Gervaisen oroimenezko lasterketan, duela bi urte podiumeko denbora izan zena egin nuen,

eta azken bigarren bukatu nuen sailkapen nagusian. Hegan egin zuten batzuek. Aurtengo irabazleak, Haimar Etxeberriak, duela bi urte irabazi zuenari minutu eta hamazazpi segundoko aldea atera zion. Atera kontuak! Izugarri dabilten batzuk daude, eta haien ondoan, gu.

♦ Lortu ez duzun zer lortu nahiko zenuke txirrindularitzan?

Lasterketaren bat irabazi nahi nuke, edo podiuma zapaldu bestela. Hila-bete gogorra datorkigu orain. Gipuzkoako Itzulia hasiko dugu gaur, eta gero, Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatzen duen Javier Ezenarro Oroitzarrea jokatu dugu [uztailaren 3an]. Eta zalantzarik gabe, herriko lasterketa irabaztea litzateke niretzat orain momentuan handiena. Kalbario eta Azkarate mendateak igoko ditugu, ondo ezagutzen ditudan bazterrak dira, eta niretzat sekulakoa izango litzateke aurrena iristea Mendarora. Amets baten parekoa litzateke herriko lasterketa irabaztea; sekulakoa!

♦ Zer esango zenieke Elgoibarko taldekide gazteei?

Txirrindularitzan saiatu nahi duenari esango nioke lehenengotik probatzeko, zenbat eta aurretik hasi hobeto delako, eta esango nioke era berean ez itsutzeko emaitzekin. Gustura dauden bitartean, jarraitzeko. Laugarren postu bat izan da lortu dudana emaitzarik onena, baina niretzat irabaztea beste izan zen, eta beste askotan lasterketa amaitzeko gai izatea bera izan da saria.

♦ Gipuzkoako Itzulia hasiko da gaur. Zein helbururekin zoaz?

Oraindik [Joan zen barikuan] ez daukat garbi etapa baten bila irten edo sailkapen nagusian postu on bat lortzer irten, baina nik uste bigarrenaren alde egingo dugula, eta aukerarik ikusiz gero azkeneko bi egunetan, saiatu etapa lehiatzen. Lau eguneko Itzulia da Gipuzkoakoa, gorabehera askokoa eta alde horretatik, niretzat aproposa, baina maila handia egongo da eta ia ba!

BABESLEAK BEHAR DITU ELGOIBARKO LAGUN TALDEA TXIRRINDULARITZA ESKOLAK

35 urte baino gehiagoko historia du Elgoibarko Lagun Taldeak. Gipuzkoa mailan jardunean den Debabarrenako txirrindularitza eskola bakarra da Elgoibarkoa eta 18 urtera arteko ematen die txirrindularitzaz gozatu eta bizikleta gainean trebatzeko aukera. Elkarrekin gaztetu eta dinamikoagoa egiteko helburuarekin, zuzendaritza talde berria osatu berri dute txirrindularitzan eskarmentua duen jendareekin. Txirrindularitzarako afizioa sortzen eta hazten jarraitu nahi dute, eta helburu horrekin, ahaleginak eta bi egin dituzte azkeneko urteotan haurrak txirrindularitzara gerturatzeko. Elgoibarko zein inguruko



herrietako ikastetxeetan antolatu izan dituzte eskola orduz kanpoko saioak, eta badirudi, lanak eman duela fruitua. Denboraldi honetan, 26 neska-mutil dituzte txirrindularitza eskolan, zazpi benjamin mailan, sei alebinetan, zazpi infantiletan, lau kadeteetan eta bi juniorretan. Baina, hala ere, klubak ez du garairik gozoena bizi. Egoera ekonomikoa ez da ona, eta babesle berrien bila hasita daude. Gaur egun, Laboral Kutxak babesten ditu. Atzo iluntzean batzarrera deitu zituen bazkideak zuzendaritza berriak Kultur Etxeko sotora, klubaren egoera zein den azaltzeko.



275 umek hasi dute Udako Kirol Campusa

azko etenaldiaren ostean [ez zuten antolatu pandemiagatik], berriro martxan da Elgoibarko Udako Kirol Patronatuak antolatzen duen Udako Kirol Campusa. Kirola eginez hasi zuten oporraldia herriko 275 umek eta nerabek joan den astelehenean, hamasei monitoreren gidaritzapean eta halaxe jardungo dute uztailearen 23ra bitartean. Kirola eginez eta lagunekin jolasten oporrak osasuntsu pasatzeko helburua du Kirol Campusak, antolatzaileen berbetan. Astelehenetik barikura, 9:30etik 12:30era, Olaizaga eta IMH kiroldegietan, Mintxetan, Ikastolako Frontoian eta herriko beste hainbat gunetan batuko dira kirolzale gaztetxoak (2006-2014 urte bitartean jaiotakoak) askotariko kirolak egiteko.

C.D. Elgoibarren urteko batzarra, gaur

Club Deportivo Elgoibar futbol taldeak urteko batzar nagusia egingo du gaur (ekainak 25), Kultur Etxeko hitzaldi gelan (19:00). Aforoa 25 pertsonakoa izango da. Besteak beste, urteko balantze ekonomikoa eta kirol balantzea aurkeztuko ditu Jon Basurto presidentek gidatzen duen zuzendaritzak. Kirol taldearen gaur egungo egoera eta ikuspegia ere azalduko dute. Horrez gainera, denboraldi honetan lehiatu ahal izan duten klubeko sei taldeetako jokalarik "konprometituena" saritzeko ere probestuko dute batzarra.



Sanloko sei jokalarik jaso dute Euskal Selektzioaren deia



Euskadiko Eskubaloi Federazioak antolatutako teknifikazio programan parte hartu zuten jubenil eta kadete mailetako neska-mutilen Euskadiko selektzioek: Zumarragan jubenilek, eta Getxon kadeteek. Sanloko sei jokalarik deitu zituzten saio horietan aritzeko. Jubenil mailako nesken Euskadiko selektzioaren deialdian sartu zituzten Olaia Aizpitarte eta June Zubiaurre; eta, mutilen selektzioaren deia jaso zuen Markel Orbeak. Domekan egin zuten teknifikazio saioa, Zumarragan. Era berean, Nahia Urbiolak, Ainhoa Arnedok eta Paula Guarrotxenak kadete mailako selektzioaren deia jaso dute. Ekainaren 27an Getxon egingo dituzte hauek entrenamenduak. Sanlotik jakinarazi dutenez, 2021/22 denboraldian taldera batu nahi dutenentzako izena emateko epea zabalik dago. Internet bidez bete behar da eskaera-inprimakia. Informazio osoagoa hemen: <https://sanlo.net/inscripcion-2021-2022-inskripzioa/>.

Emakumezkoen estreinako Pentatloian hartu du parte Uxue Ansozregik

Emakumezkoen Pentatloiko Laboral Kutxa Saria eta Gizonezkoen II. Mahala Binakako Euskal Pentatloiko finala jokatu zizuten zapatuan Tolosako zezen plazan. Estreinakoz jokatu da emakumeen pentatloia eta lehiatu ziren bi bikoteetako bat osatu zuen Uxue Ansozregi kirolari mendarorarrak. Hiru bikote ziren lehiatzekoak emakumeen pentatloian, baina Claudia Muñozek min hartu zuen aizkorarekin entrenatzen ari zela, eta parte hartzeari uko egin behar izan zioten Muñozek eta berarekin bikotea osatzekoa zen Julia Martinezek. Hala, bi bikote irten ziren Tolosako zezen plazara, luzia Orbe eta Garazi Arruti batetik, eta bes-tetik, Karmele Gisasola *Zelai III.ak* eta Uxue Ansozregik osatutako. Arrutik eta Orbek nagusitasunez irabazi zuten lehia, 29 minutu eta 45 segundotan osatu baitzituzten lanak. Gisasolak eta Ansozregik minutu bat eta 41 segundo gehiago behar izan zituzten lanak bukatzeko, 31 minutu eta 27 segundo. Bikote bakoitzak 63 kiloko harriari hogeitasei jasoaldi eman zizkion, eta Ansozregik zailtasunak eduki zituen lanak bukatzeko, eta ondorengo lan guztiak baldintzatu zizkion. Harri jasotze proba amaitu ostean, giza probara pasa ziren lehiakideak, eta bi plaza egin zituzten, bakoitzak bana. Gero, aizkorarekin, 45 ontzako bi enbor ebaki zituzten, txingak hartuta sei plaza egin zituzten ondoren, eta



azkenik, korrika bi kilometroko ibilbidea osatu zuten plazan bertan. Tolosako plazan egin zuten lanak ez du erabat asebate Uxue Ansozregi, baina irakaspen ona izango dela uste du. "Ezin izan nuen gustatu izango litzaidakeen moduan probaz gozatu, harria jasotzeko lanetan paliza handia hartu nuelako. Bero handia egiten zuen, eta harria ez irristatzeko eskuetan jartzen dugun kolak ere irrist egiten zidan... sentazio txarrak eduki nituen eta deseroso aritu nintzen. Giza probatik aurrera aldea errekuperatu genien arren, aurrez xahututako indarren falta igarri nuen. Edonola ere, nahi adina gozatu ez arren, esperientzia polita izan da eta datoren urterako gehiago entrenatuko dut, nire onena emateko".

Diplomak eta garaikurrak banatuta amaitu dute denboraldia 40 +15 Tenis elkartean



40 + 15 Tenis eta Padel Elkarteak denboraldiari amaiera emateko ekitaldia egin zuen aurreko barikuan, Mintxetan, eta pandemiagatik jokatu ez diren txapelketetan eskuratuko litzaketen garaikurrak eta diplomak banatu zizkieten ikasleei. Elkarteko kide Luis Garciaik azaldu duenez, eurentzat ere urte berezia izan da aurtengoa, baina ahal izan duten guztietan gauzatu dituzte entrenamenduak, eta denboraldian zehar eginiko lana eskertu nahi izan diete ikasleei. Ikasleen artean aurrerapen handiena egin duen jokalaria ere saritu zuten, eta Ainhoa Bustamantek jaso zuen sari hori.

Javier Ezenarro Oroitzarrea txirrindulari lasterketa, uztailaren 3an

Javier Ezenarro Oroitzarrea txirrindulari lasterketaren 14. edizioa jokatu dute uztailaren 3an, Mendaron. Gipuzkoako txapelketako proba izango da Mendaroko Txirrindulari Elkarteak urtero junior mailako txirrindularientzako antolatzen duen lasterketa hau, eta guztira, 84 bat kilometroko ibilbidea osatu beharko dute txirrindulariek, bi aldiz Osintxuraino joan eta beste birritan Kalbarioko gaina igoz. Kurutz gain industrialdean hasi (16:00) eta amaituko da lasterketa, eta industrialdea itxita egongo da. Norbanakoek mugatua izango dute sarrera. "Mesedez, beraz, ez gerturatu irteera zein helmuga puntura, jende pilaketak saihestea dagokigulako", erregutu dute antolatzaileek.



Pilotari elgoibartarrak txapeldun eta txapeldunorde Barañainen eta Azkoitian jokaturako finaletan

Joa den asteburuan bi final jokatu zituzten pilotari elgoibartarrek. Batetik, Iker Izagirre elgoibartarrak eta Jokin Artetxe azpeitiarrak osaturako bikoteak San Esteban pilota txapelketako finala jokatu zuten, Barañaingo Retegi pilotalekuan. Gipuzkoarrek Igoa eta Okiñenak osaturako Iruztungo bikotea izan zuten aurkari eta 18-4ko emaitzarekin irabazi zuten infantil mailako finala. Bestetik, Lagunak Pilota Eskolako Asier Gurrutxaga eta Mikel Arrieta palistek Udaberi Txapelketako nagusien Lehen Mailako finala jokatu zuten Azkoitiko Gurea pilotalekuan. Iker Epelde eta Aratz Zabaleta bikote azkoitiarrak, baina, mende hartu zituen 25-10eko emaitzarekin.



Ushba mendia igo du Alberto Fernandezek, Kaukasoko Cervino deitzen dioten mendia

Mikel Zabalza nafarrak gidatzen duen Espainiako Alpinismo Taldea Kaukasoko mendi ezagunena den Ushba (4.710 m, hegoaldeko tontorra) mendian espedizioa burutzen ari da, eta talde horretako kidea izana den Alberto Fernandez elgoibartarra ere ari da parte hartzen espedizio horretan. Bidaia hasi eta astebe-tera lortu dute Kaukasoko mendi ikonikoena den Ushba mendira igotzea, zailtasun handieneko hego aurpegitik burututako ibilbidean. 1.500 metroko bidean ED+ (6a, A4) zailtasunak gaingitu behar izan zituzten. Ushba-k badu ospe berezi bat: oso arriskutsua izatea. Oraingoan gainera, elur pilaketa handiak topatu dituzte bidean. Igoeran parte hartu zuten zazpi alpinistek lau egunetan burutu zuten igoera, hiru vivac eginda. Georgiako Svanetiko eskualdean dago Kaukasoko Cervino deitzen zaion mendia, eta sona handia hartu du oso estetiko delako. Bi gailur ditu: iparraldekoa eta hegoaldekoa.



Maiores txapeldun Saint Lary Patoun, eta Mujika laugarren Italian

Frantziako Saint Lary-Soulan inguruan jokatu den 42 kilometroko mendi lasterketa gogorra irabazi zuen aurreko asteburuan Maite Maiorak, 5 ordu, 13 minutu eta 42 segundoko denbora eginda. Mayi Mujikak, berriz, Munduko Skyrunning Kopako lehen proban hartu zuen parte Italian, Livigno Skymarathon lasterketan. Euskal selekzioa ordezkatu zuen Mujikak eta meritu handiko laugarren postua eskuratu zuen 34 kilometroko proban.



Imanol Alvarez sailkapen nagusiko bigarrena da Abiatzen Torneoan

Hamahiru lasterketa jokatu ostean amaitu da Euskadiko Txirrindularitza Federazioak antolatzen duen Abiatzen Torneoa. Laboral Kutxako Unai Iribar txirrindulari ibartarra izan da erregularrena, 128 puntu eskuratuta, eta berak lortu du garaipena. Azken proba Tolosan jokatu zuten ekainaren 13an, baina Iribarrek ez zuen parte hartu 23 urtez azpiko Espainiako Txapelketan lehiatu baitzen egun berean Euskadiko selekzioarekin (hirugarren postua lortu zuen). Hainbat astetan sailkapen nagusiko lidertzari eutsi zion Imanol Alvarez (Eiser-Hirumet) txirrindulari elgoibartarrak, eta bigarren egin du Abiatzen Torneoko sailkapen nagusian, 117 punturekin, eta Mikel Retegi (Lizarte) izan da hirugarren, 105 punturekin.



Deittu'idak txakurra, baiña ema'idak ogixa: Alegia, berdin zait zer gauza gaizto esaten duzun nigatik (zerbait txarra egin dut-eta), baina nirearekin irten naiz ni.

Eneko Etxanizek irabazi du Aurreku Txapelketa Nagusia, gazteetan

nazio Bereziartua Musika eta Dantza eskolako dantzariak maila bikaina eman zuten Gazte Mailako III. Aurreku Txapelketa Nagusian. A eta B saileko dantzariak ekainaren 7an jokatu zituzten finalak Erreterian, eta bigarren postua eskuratu zuen Unax Ansolak, A sailean, 2011tik 2013ra bitartean jaiotakoetan. Joan zen zapatuan jokatu zituzten, berriz, D sailekoen finalak (2006 eta 2007. urtean jaiotakoak). Ligaxkan puntu gehien batu zituzten hamalau dantzariak lehiatu ziren finalean, tartean Elgoibarko hiru: Malen Galarraga, Jon Etxeberria eta Eneko Etxaniz, ligaxkako irabazlea. Eta hain justu ere, Eneko Etxanizek berak jantzi zuen txapela. Bigarren Ane Jaunarena lezoarra sailkatu zen eta hirugarren Naroa Arretxe Amasa-Villabonakoak egin zuen.



Ameikutz Musika Eskolako jaialdia, sarean

Garagartzako planzan egitekoa zuten Mendaroko Ameikutz Musika Eskolakoek ikasturte amaierako jaialdia joan zen egunean, baina eguraldiak behartuta, San Agustingo oholztan aritu ziren herriko musikari gazteak, ikasturtean zehar ikasitakoa erakusten. Bi saio eskaini zituzten, eta bideoak *barren.eus* webgunera igo ditugu.

'Euskara ala ezkara ertzetan?' jardunaldiak antolatu dituzte Elgoibarren urriaren 16rako

Zelakoak izan ginen euskaldunak? Eta orain, zelakoak gara? Zertan aldatu gara? Zer da euskaldun izatea? Badago hizkuntza-ideologiarik? Euskalduntasun onak eta txarrak al daude? Zer da euskara naturala edo jatorra? Nolakoak izango gara euskara eta euskaldunak etorkizunean? Euskara etxetik jasotzen ez duenak zergatik aukeratzen du euskara? Zer behar du euskarak aukeratu izateko? Nolako euskara behar du periferiak? Nolako periferia behar du euskarak?. Galdera hauei eta gehiagori erantzuten ahaleginduko dira Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak urriaren 16rako antolatu duten *Euskara ala ezkara ertzetan? Euskaldun identitateak XXI. mendean* izenburuko jardunaldian. Bi hitzaldi eta beste bi mahai-inguru izango dira, eta urtero legez, euskalgintzan itzal handia duten lagunak gonbidatuko dituzte:

- **Ibon Manterola.** Linguistikan doktorea. Zumaiarra.
- **Miren Artetxe.** Euskal Filologian lizentziatua, bertsolaria eta soziolinguistikan

ikerlaria. Hendaiarra

- **Ibai Iztueta.** Biologian lizentziaduna eta kognizio zientzien eta giza zientzien adarrea doktorea EHU. Zegamarra.
- **Eneko Gorri.** Miarrizeko Euskara teknikaria eta iaz, Txillardeggi-Hausnartu soziolinguistika saria eskuratu zuena, *Euskaltzaletasuna sendotzeko ekosistema komunikatiboa* lanagatik.
- **Tarana Karim.** Abokatua, itultzailea eta aktibista. Azerbaijandarra.
- **Kike Amonarriz.** Euskal Filologian lizentziatutako soziolinguista eta egun Euskaltzaleen Topaguneko presidentea. Tolosarra
- **Ningra.** Raplari euskalduna. Uxue Iturrate izenez. Bitorianoarra, arabarra.
- **Garazi Arrula.** Txalaparta argitaletzeko editorea. Tuterarra.
- **Nerea Ibartzabal.** Idazle, bertsolari eta kazetaria. Markinarra.
- **Idurre Eskisabel.** Kazetaria eta antropologoa. Beasaindarra.

Interesdunek Elgoibarko Izarran eman behar dute izena, eta hiru bide zabaldu



dituzte horretarako: aurrez aurre, Elgoibarko Izarrak Aita Agirre eraikineko hirugarren solairuan duen bulegora joanda; Telefonoz, 943 741 626 telefono zenbakira deituta (Imanol) edota e-postaz (*elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus*). Bi prezio zehaztu dituzte antolatzaileek: 27na euro ordaindu beharko dituzte pinxo-bazkarira geldituko direnek, eta 20na euro bazkaltzen geldituko ez direnek.

Euritan dantzan jardun dira Mendaroko haurrak San Joan bezperan



San Joan bezperarako kalejira eta suaren bueltako jaialdia iragarria zuten Mendaroko gaztelekuak, ludotekak eta Udalak eguaztenterako, baina eguraldiak dena desitxuratu zuen. Hala ere, irten ziren haurrak kalejiran, dultzaineroek eta Zubietako joaldunek lagunduta. Euria goian-behean zela osatu zuten ibilbidearen erdia, eta ondoren, afari-mokadua egin zuten askok Gaztelekuan. 22:00etan irten ziren berriro plazarantz. Hiru auzotan zituzten suak piztekoak eta haien bueltan dantza egitekoa zuten hurrek, baina azkenean Herriko Enparantzako sua piztu zuten bakarrik eta frontoian dantzatu zituzten prestatutako hiru dantzak: Borobilean, Zazpi Jausi eta Txapeloaz. Bukaera ezin hunkigarriagoa izan zen. Izan ere, frontoian batutako jendeak eta hurrek eurek sekulako txalo zaparrada eskaini zioten Amagoia Zabalari, ludotekako eta gaztelekuko arduraduna izan dutenari.

200 bat dantzari aritu dira Herriko Antzokian dantzan, 'Biraka bizi' jaialdiaren barruan

Urte osoan zehar egindako lanaren azken emaitza erakutsi zuten Biraka taldeko dantzariak joan zen barikuan, Herriko Antzokian. 5 urtetik 20 urtera arteko 200 bat dantzari igo ziren oholtzara, txandaka. Berezia izan da aurtengoa, COVID-19aren kontrako neurriak direla-eta, publikoak ez zuelako sartzerik izan. Hiru taldetan banatuta sartu ziren dantzariak Herriko Antzokira, tenperatura hartu ostean, eta segurtasun distantziak gordeta eta musukoa jantzita antolatu zituzten guztiak eserlekuetan. Antolatzaileek grabatu egin zuten saioa, gero familiei erakusteko.



Uztailaren 24, 25 eta 26rako eskaintza kulturala antolatzeko bilera, gaur, Mendaron

Aurten ere Santa Ana jairik ez dela izango gogoratu dute Mendaroko Udaletik, baina uztailaren 24, 25 eta 26rako kultur eskaintza prestatu nahi dute egoerak hobera egin duela baliatuta, eta horretarako, batzarrera deitu dituzte herritarrik biharko [aurrez beste bat egin zuten]. Lagun Betikoak elkartearen lokalean izango da batzarra, 19:00etan hasita. Batzarra segurtasun neurri guztiak zainduta egingo dutela nabarmendu dute Udaletik.

Zuhaitz Gurrutxagaren 'FutbolisTOK' bihar, Mendaron

Futbolari profesionala izan zen garaiko kontuak ekarriko ditu gogora bihar Zuhaitz Gurrutxagak Mendaron, *FutbolisTOK* izeneko ikuskizunaren baitan. Era berean, bizi izan zuen TOK nahasmenduak eragindako burukominez ere mintzatuko da umoregile aiastiarra. San Agustin kulturgunean izango da emanaldia, 18:00etan hasita, eta sarrerak salgai daude dagoeneko udaletxean eta Morrokillon, 5 eurotan.

LANA.....

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka eta asteburuetan ere lan egiteko prest.

☎ 641 821 288

Neska gaztea, udan umeak zaintzeko prest. Haur Hezkuntza ikasketak. Euskalduna. ☎ 689 61 88 20

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Ospitaleetan ere zaintza lanak egiteko prest nago.

☎ 631 465 603

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Goizez, orduka. ☎ 605 527 278

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzen esperientzia handia daukat. Etxeko langile moduan jarduteko prest nago.

☎ 643 071 900

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan. Esperientzia eta titulazioa ditut. ☎ 662 460 266

Etxeko lanak egiteko edo umeak zein adinekoak zaintzeko prest nago.

☎ 655 094 780

Emakumea eskaintzen da asteburuetan lan egiteko, etxeko langile moduan.

☎ 643 584 198

PARTIKULARRAK.....

Skate klaseak ematen ditut, hasiberrientzat eta hobetu nahi dutenentzat.

☎ 672 183 313 (Danel Iriondo)

ETXEBIZITZA.....

Pisua alokatzen dut San Roken. Bi logela, bi komun eta berogailu zentrala ditu. Etxe atsegina eta polita da.

☎ 660 042 159 (arratsaldez)



Argazkiak eguztzen eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira
BARRENEko bulegora,
barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara
edo ☎ 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Nora**, ekainaren 22an 5 urte egin zenituelako. Eta, baita zuri ere, amama! Muxu handi bana, etxekoan partez.



Zorionak, **Eneko!** Iritsi da zure eguna! Ondo pasat! Muxu asko, familiaokoen partez.



Zorionak, **Gorka**, atzo zure urtebetetze eguna izan zelako. Muxu handi bat familiaokoen, eta bereziki, Nara eta Juneren partez. Asko maite zaitugu.

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoaldea Finantza Administrazioetako Kontakidatza



**ROSA Ma
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean hodi nagusi bat ezinbestean konpondu behar izan dute. Horretarako, etxebizitza batean, sukaldako altzariak desmuntatu eta horma bateko azulejuak apurtu dituzte. Gainera, azuleju berdinak ez dituztenez aurkitu sukalde guztiko azulejuak aldatu egin behar izan dituzte. Jakin nahi nuke ea komunitateak ordaindu behar dituen etxe horretako sukaldean hodiaren konponketak eragindako kalte guztiak. Izan ere, egungo sukaldearen zati hori jatorrian bainugela batekoa zen eta jabeak orain dela urte batzuk egindako obra baten ondorioz sukaldean integratu zuten.

Berez komunitateak ordaindu beharko lituzke konponketak egitean etxebizitearen sukaldean sortutako kalte eta galera guztiak, nahiz eta obra batzuk egin ondoren, orain sukaldearen zatia dena jatorrian bainugela izan, lan horiek bermatuta baitaude. Kontuan hartu behar da legearen arabera jabe guztiak onartu behar dutela beraien etxe edo lokalean eraikinaren zerbitzuak eskatutako konponketa bat egitea beti ere komunitateak kalteordainak emateko eskubidearekin. Legeak ez du zehazten ordaindu beharreko kalteei buruzko modulaziorik.

AHOLKUA: Oro har eta salbuespenik ezean, egindako kalte eta konponketa guztiak hartzen dira kontuan, besteak beste itxurari dagozkion kalteak.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

25 BARIKUA

19:00 Elgoibar BHI institutuko diploma banaketa. Kultur Etxeko sotoan.

19:00 Mendaroko Santana egunaren bueltako ekintzak antolatzeko bilera. Lagun Betikoak elkartearen egoitza.

20:00 Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea, Kalegoen plazan.

26 ZAPATUA

9:00 Hilabeteko azken zapatuko feria. Elgoibarko baserrietako produktuen salmenta, Kalebarren plazan. Egueditik aurrera, ganadu erakusketa Aita Agirre plazan.

18:00 Bakarrizketa: 'FutbolisTOK' bakarrizketa aurkeztuko du Zuhaitz Gurrutxagak, Mendaroko San Agustin kulturgunean.

27 DOMEKA

11:30 San Pedro apostoluaren oroimenez, meza berezia, San Bartolome parrokiari.

28 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabeakuntza tailerra: 'Andre, ez zait gustatzen zu ixilik geratzea'. Berdintasun Sailak antolatuta, Loredi Salegik dinamizatuko du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

30 EGUAZTENA

19:00 Fabula musikatuak: 'Ibaia': Iban Urizar eta Uxue Alberdi. Elgoibarko Izarrrak eta Udalak elkarlanean antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

2 BARIKUA

19:00 Kontzertua: Mausitxa Band. Mausitxa txarangak emango du kontzertua, Kalegoen plazan.

19:00 Bideo foruma: 'Locas de alegría'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

25 BARIKUA	26 ZAPATUA	27 DOMEKA	28 ASTELEHENA	29 MARTITZENA	30 EGUAZTENA	1 EGUENA	2 BARIKUA
Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez Arriola	Egunez * Fernandez	Egunez Yudego	Egunez * Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez * Ibañez
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Arriola

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Sorraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Sorraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarburutze, 7 (Eibar)
943 201 912

Osasun gida Osasun gida Osasun gida

RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELUKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850

fisio&mas
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 964 629
www.fisio-mas.com
RPS 177/12

RPS 183/12
Uzuri
optika audio

Elgoibar
Tel.: 943 740 359

Deba
Tel.: 943 192 192

FUB Fernando Urizar Barandiaran
R.P.S.: 32/17

Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika

Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Baliain kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
furizarf@yahoo.com
615 715 404

leku eder
hortz klinika
RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07

San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 beheka
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

Osasun gida Osasun gida Osasun gida



Jon Galarraga Aranguren

2021eko ekainaren 19an hil zen, 51 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

*Aita Juanito, anai-arrebak,
sendia osotasunean,
gaixoaldian izan zarete
euskarri aldamenean,
eta Itziarren beso goxotan
kulunka maitasunean,
zure semeen inozentziak
emandako indarrean
azken unera arte borrokan
modurik duinenean.
Orain atseden har ezazu, Jon,
amatxoren magalean.*



Jon Galarraga Aranguren

2021eko ekainaren 19an hil zen, 51 urte zituela.

*Zure ondoan bizitza pozgarria izan da.
Ez zaitugu ahaztuko.*

Egotoki Elkartea



Eskertzak eta urteurrenak **943 743 704 / 943 744 112**
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



Jon Galarraga Aranguren

2021eko ekainaren 19an hil zen, 51 urte zituela.

***Ikastolan ezagutu genuen elkar,
orain laguntasunak biltzen gaitu.
Bizi duzuen une zail hauetan
gu hor gaudela ez ahaztu.***

Xabat eta Julenen ikastolako lagunak



Jon Galarraga Aranguren

2021eko ekainaren 19an hil zen, 51 urte zituela.

***Umetatikan lagun zaitugu
hazi gara elkarrekin
lagun hitzaren zentzu osoa
uler daiteke zurekin.
Zenbat bizipen, zenbat oroipen
geratzen diren gurekin.
Agur, Jon, agur, ama zain duzu
zoaz udaberriakin
zure zati bat geratuko da
gutako bakoitzarekin.***

Zure kuadrilla



Jon Galarraga Aranguren

2021eko ekainaren 19an hil zen, 51 urte zituela.

***Elkarrekin gozatu dugu,
sendiaren babesean.
Gure artean banatu duzu,
maitasuna eta adorea.
Barnean beti izango dugu,
Jon, zure irribarrea.***

Lehengusu eta lehengusinak



“SATORRA ETA GU”

musika emanaldia



Uztailak 3, larunbata

19:00

Herriko Antzokia

5 €

Sarreraren aurre-salmenta Elgoibarko Izarra elkartearen

Aita Agirre Kulturgunea 3, 3 ezkerre

943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus



ELGOIBARKO IZARRA
Elkartetzaleen Topagunea



ELGOIBAR
UDALA
AJUNTAMENTO